

DEPORTAZIOA UR AZALERA



LARRUN #265

EPAIKETARIK GABEKO KONDENA AMAIGABEA

EGILEA | **ZIGOR OLEAGA OLABARRIA**

AZALA | **JOSEBA LARRATXE JOSEVISKY**

1 984. eta 1989. urteen artean Frantziak, Espainiarekin adostuta, 70 euskal herritar deportatu zituen Afrikako eta Hego eta Erdialdeko Amerikako hamar herrialdeetara. Euskal Herrian 60ko hamarkadan loratu zen pizkunde eta borroka zikloari estatuek emandako erantzun errepresiboaren aurpegietako bat da deportazioarena, ezaugarri berezituak dituena: deportatuei ez zitzaien delitu edo ekintza zehatzik leporatzen; ez zegoen inongo epaitegiren kondenarik haien aur-

ka; zigorrak ez zuen amaiera data jakinik. Gure herriaren memoriaren itsasoan, deportatuen historia ur sakonetan hondoratzen joan da, eta ezezaguna da presoenarekin edo errefuxiatuenarekin alderatuta; ez ordea bidegabekeria, sufrikario zein erresistentzia gutxiagokoa. Eta itxi gabe dagoen kapitulua da oraindik ere: zortzi pertsona deportatuta jarraitzen dute, amaiera jakinik gabeko deserrian. LARRUN honetan deportazioaren ezaugarriak, zergatiak eta ondorioak ur azalera ateratzen saiatuko gara.

LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA · ARGIAren 2.743 zenbakiarekin banatua.

JABEA: KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

POSTA ELEKTRONIKOA: LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA

2021eko abuztuaren 1a

Arriskutsutzat edo mespretxa-garrizat dituzten herritarrak sorterritik urruntzea edo mugetatik kanporatzea praktika zaharra da estatuen historian. Espainia eta Frantzia ez dira salbuespena, eta neurri horiek euskal herritarren aurka ere erabili izan dituzte.

Aipa daitezke 1794an, Frantziako Errepublikaren aurka egotea eta Espainiaren konplize izatea leporatuta, Landetara kanporatu zituzten Sara, Ezpeleta, Senpere eta Azkaineko 3.000tik gora herritarrak. Aipa litezke Bigarren Gerra Karlistaren ondoren Kanariar Uharteetara eta Kubara bidali zituzten Hegoaldeko milaka euskal herritarrak. ETaren sortzaileen kanporatzeak 1960ko hamarkadan; talde armatuetaiko dozenaka kiderenak Trantsizioan.

80ko hamarkadatik aurrerako gertaeretara mugatuko gara, ordea: batetik, ordurako aurreko deportatu eta kanporatu guztiak bueltatuak zirelako, 'kontagailua' zeroan utziz; bestetik, epe 'demokratiko' betean irekitako deportazio zikloa gaur egunera arte luzatzen delako. Susana

Paniselloren *Los deportados de ETA. Los olvidados del conflicto* liburu argitaratu berria erabili dugu nagusiki gertatuaz dokumentatzeko.

ESPAINIA ETA FRANTZIA, MESFIDANTZATIK KOLABORAZIO ESTURA

Trantsizio urteetan areagotu bazen ere, 80ko hasieran Espainiaren eta Frantziaren arteko kolaborazioa Ipar Euskal Herriko errefuxiatuen aurka ez zen Espainiak nahiko lukeena. Espainia ez zen, artean, demokrazia homologatua frantsesen begietara, eta euskal erresistentziak zein talde armatuek zilegitasun handia zuten herritar askoren begietara. 1981ean François Mitterranden Frantziako Alderdi Sozialistak (PSF) hauteskundeak irabazi zituen. 1982an Felipe Gonzálezen PSOE izan zen garaile Espainian. Ezkerrak gobernatzea Espainiak diktadurarekin apurtu zuela frogatzen omen zuen, eta Madrilen zein Parisen alderdi sozialistak zeuden gobernuan: bi urtetan "Frantziaren eta Espainiaren arteko kolaborazioak 180 gra-

duko norabide aldaketa" egin zuen.

Espainiak Frantziari eskatzen zion errefuxiatuak eta iheslariak estraditatzeari. Baina hori gehitxo zen euskal gatazka "Espainiaren arazo" bezala ulertzen zuen Frantziarentzat. Espainiak presioa egin zuen. Diplomatiakoa eta politikoa, lehenbizi. Militarra ere, ondoren: GAL Ipar Euskal Herrian atentatuak egiten hasi zen. Aldi berean, Iparraldeko euskal herritar zenbait ETAn militatzen hasiak ziren, eta Iparretarrak taldearen jardun armatua gora zihuan. Gero eta "arazo propioagoa" zuen Frantziak Ipar Euskal Herrian, eta errepresioan sakontzea erabaki zuen.

Abenduaren 20an Mitterrand eta Gonzálezek bilera egin zuten Parisen, eta hartatik irtetean Gonzálezek Joan Reventós Espainiak Frantzian zuen enbaxadoreari adierazi zion: "Hau aldatu egingo da, ikusiko duzu". Hogei egun beranduago, 1984ko urtarriaren 10ean, Jendarmeriak hamasei errefuxiatu atxilotu zituen, horietariko sei deportatzeko ondoren. Gaur egunera arte luzatzen den deportazio zikloaren hasiera zen.



INPROBISAZIOA ETA IRREGULARTASUNAK

Sarekadaren egun berean Fernando Morán Espainiako Gobernuko Atzerri ministroak Panamarako hegaldia hartu zuen, herrialdeak deportatuak hartu zitzaizkizkiz. Deportazioaren hastapen inprobisatuaren erakusgarri da bidaia. Deportazioa urrats taktikoa izan zen, bederatzi hilabete geroago hasi ziren estradizioei bidea irekitzeko. Neurri trantsitorio moduan pentsatu zen, Espainiako Barne ministro Jaime Mayor Orejak 1997an onartuko zuenez: “Deportatuena une jakin batean inprobisatu zen figura bat da, konplexua, irregularitasunaren muga”. Baina indarrean dirau 37 urteren ondoren.

Juridikoki salbuespenezko neurria zen deportazioa. Horrela definitu zuen deportatuetako batzuen abokatu izan zen Miguel Castellsek: “Zuzenbide garaikidean ohiz kanpokoa da figura hau: Estatu baten Gobernuaren esku-hartzea eta hitzarmen sekretuak direla eta, Estatu horretako herritar bat deportatu egiten du beste Estatu bateko Gobernuak, eta hirugarren Estatu batean edukitzearen dute, praktikan preso, zerbitzu sekretuen menpe”.

Frantziak, bere aldetik, pirueta judizial bat egin zuen delitu zehatzik leporatzen ez zitzaizkizkiz edo kausa judizialik irekirik ez zuten herritarrek bere lurraldetik kanporatzeko. Are gehiago, deportatuetako asko errefuxiatu estatutuaren jabe ziren, Frantziak berak emana. 1954ko ordenantza batean oinarrituz, “Estatuarentzako edo segurtasun publikorako arrisku bat” izateagatik deportatu zituen Frantziak iheslari eta errefuxiatuak, froga zehatzik gabe. Neurri administratiboa zen, ez judiziala. Segurtasun irizpideak argudiatuta, azkenik, salbuespenezko bide bat gehiago erabili zuen Frantziak atxilotuak bermerik gabe eta administratiboki ahal bezain azkar deportatzeko: “erabateko presazko prozedura”. Atxilotuari kanporatze

agindua jakinarazten zioten, asignazioa ezartzen zitzaion [eremu jakin batean bizitzeko agindua], eta abokatuekin edo senideekin kontaktua debekatu. Gehienez ere hilabeteren buruan, helmuga egun edo ordu gutxi batzuk lehenago jakinarazita eta inongo paperik gabe, hegazkinean sartzen zuten.

1984-1989: DEPORTAZIOAK

Panamako deportazioak kate luze baten lehen katebegia izan ziren. 1984an deportatu zituen Frantziak euskal herritar gehien, 28: Panamara (15, horietariko zazpi Kubara lekualdatu zituzten urte berean), Venezuelara (8), Dominikar Errepublika (1) eta Togora (4). 1985an bost: Cabo Verdera (3) eta Ekuadorrera (2). 1986an zazpi: Cabo Verdera (6) eta Gabonera (1). Urte horretatik aurrera, deportazio gehienak ETaren eta Espainiako Gobernuaren arteko Aljeriako negoziazio prozesuarekin lotuta egon ziren. Hasiara batean, negoziazioak ahalbidetzeko asmoz. 1987an hamazazpi euskaldun deportatu zituzten: Aljeriara (14) eta Venezuelara (3). 1988an ez zen deportaturik gehitu zerrendara. 1989an mugimendua handia izan zen. Urte hasieran Patxi Hernández deportatu zuten Aljeriara, eta ondoren, negoziazioak hautsita, Aljeriatik 27 euskal herritar deportatu zituzten Venezuelara (11), Cabo Verdera (10) eta Dominikar Errepublika (6). Horietariko batzuk aurretik ziren deportatuak, baina hamabirentzat deportazioaren hasiera zen. 1989an hamahiru pertsona berrirekin loditu zen deportatuen zerrenda, hortaz. Orotara 70 deportatu, 62 gizon* eta 8 emakume*. 1989tik aurrera ez zen deportazio berririk gertatu –1990ean lau deportatu lekualdatu zituzten Panamatik Venezuelara–, Frantziak eta Espainiak estradizioen eta entregen alde egin baitzuten.

Kontuan hartu behar da mugimenduak gehiago izan zirela, deportatuetako asko hasierako herrialde-

tik lekualdatu zituztelako behin edo gehiagotan, arrazoi ezberdinak medio: deportazio herrialdearen ezegonkortasun politikoa, osasun arazoak, Espainiaren interes politikoak, ETA-estatua negoziazioen bilakaera...

ASKOTARIKO BALDINTZAK, OINARRI BERA

Frantziak deportatzen zituen errefuxiatuak, baina deportaziorako hirugarren herrialdea lotzeaz eta gastuak ordaintzeaz Espainia arduratzen zen –Togo eta Gabon izan ziren salbuespenak, Frantziak lotu baitzituen zuzenean–. Deportatuen baldintzak ezberdinak ziren herrialdez herrialde. Venezuelan eta Kuban lan egiteko eta etxebizitzetan ‘bakarrik’ bizitzeko aukera izan zuten. Poliziak jarraitzen estua egiten zuten edonola ere. Togon, Gabonen, Dominikar Errepublikan eta Ekuadorren poliziarekin batera bizi ziren deportatuak, giro itogarrian. Ekuadorren, Espainiako Polizia Alfonso Etxegarai eta Miguél Ángel Aldana bahitu eta torturatzera heldu zen. Cabo Verden lan egiteko eta komunikatzeko aukera zuten. Aljerian mugimendu askatasuna zuten baina segurtasun indarrek hurbiletik kontrolatzen zituzten. Sao Tomen 33 urte eman zituen bakarrik Alfonso Etxegarai...

Ezberdintasunak ezberdintasun, denak bizi ziren linbo juridiko batean, ziurgabetasun erabatekoan eta sorterritik milaka kilometrora. Oinarrizko eskubideen urraketa egiturazkoa, Espainiako Estatuak “estatu barruan bertan lortu ezin izango litzuzkeenak”, Castellsen esanetan.

Espainiak bi irizpide nagusi zituen herrialdeak aukeratzeko: afinitate politikoa edota pertsonala –deportatu gehien hartu dituen Venezuelako presidente Carlos Andrés Pérez Felipe Gonzálezen laguna eta Internacional Sozialistako kidea zen, esaterako–, eta behar ekonomikoa –deportatuen gastuez arduratzeaz gain, Espainiak kredituak eta diru-laguntzak bideratzen zituzkien herrialde

hartzaileei ‘mesedeen’ ordainketa ez-ofizial bezala, Panisellok bere liburuan zehaztasunez ikertu duen bezala-.

EUSKAL HERRIRATZEAK

Deportatuen egoerak ez zuen izan aldaketarik 1990-1996 aldian. 1996ko maiatzean PPK hauteskondeak irabazi zituen Espainian. Ekainean, Cabo Verdetik eta Aljeriatik ihes egindako María Rosa Alkorta eta Patxi Hernández Bruselan agertu ziren, Deportatu Politikoen Kolektiboaren izenean “nazioarteko komunitateari eta euskal jendarteari” zuzendutako agiri bat irakurtzeko. Deportazioari “behin betiko” amaiera jartzeko erabakia iragarri zuten. Egun batzuk geroago, hamar deportatu izan ziren prentsaurrekoa eman zutenak, Donibane Lohitzunen, eta Ipar Euskal Herrian bizitzeko asmoa agertu zuten. Frantziak estraditatzeko mehatxua egin zien, eta taldeak itxialdia hasi zuen Baionako katedralean. Polizia katedralean sartu zen azkenik, bi deportatutik ihes egitea lortu zuten eta beste zortziatik Frantziak sei estraditatu zituen Espainiara. Deportazioaren izaera ankerraren aurpegi berri bat azaleratu zen orduan: deportazio urteak ez dira kontutan hartzen kondena murriztu edo likidatzeko espetxe zigorra jasoz gero. Azaroan, Errefuxiatu Egunaren testuinguruan, beste bi deportatutik jakinarazi zuten deportazioa hautsi zutela.

Antolatuen eta kolektiboena bai, baina ez zen deportatuek deportazioa hausten zuten lehenbiziko aldia. 96aren aurretik zein ondoren, herrialde batetik edo bestetik ihes egin dute deportatuek tantaka-tantaka. Horietako batzuk Euskal Herrian borroka armatua egiteko, ekintza armatuen testuinguruan hildako Patxi Rementeria eta José Miguél Bustinza kasu.

PPren gobernuak ere egin zituen mugimenduak gobernura heltzean. Batetik, kausa irekirik ez zuten deportatuei bueltatzeko aukera eman

zient; ez ordea gainontzekoei. Gehienek ez zuten irtenbide indibidual hori onartu. Bestetik, deportatuen aurkako estradizio eskaerak aurkeztu zituen hainbat herrialdetan. Herrialde askok ez zuten estradiziorik onartu, legez kanpoko zela argudiatuta: deportatuak estatuen akordioen ondorioz zeuden bertan, ez ihesean. Baina batzuk bai onartu zuten eskaria.

MENDEKUA ETA BABESA

2011ko urrian, ETAk borroka armatua behin betikoz uzten zuela iragarri zuen. 2012ko martxoan, Espainiak Auzitegi Nazionalak ebatzi zuen pertsona baten estradizio eskaera

aurkezteak bere delituen preskripzioa edo akusazioaren iraungitzea eteten duela. Hau da, terrorismo delituetarako ezarritako 20 urteen preskripzio epea zerotik hasten dela berriz ere. Estatuaren mendeku gosea agerian geratu zen. Kontrako noranzkoan, 2013ko ekainean Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboak agerraldi masiboa egin zuen, “Euskal herritar errepresaliatu guztiak Euskal Herrira eta beren etxeetara bueltatzeko garaia” zela esateko. Deportatuei dagokienez, zortzi dira orduan beren sorterrira bueltatu direnak, aurretik espetxeratze arriskurik ez dutela ziurtatu ostean.

Gatazka armatua aspaldi amaitu bazen ere, haren zurrunbiloan jaitako deportazioaren auziak irekirik jarraitzen du 37 urteren ondoren. Hamabi deportatu hil dira deportazio bitartean. Zortzik ezin dute bueltatu espetxearen mehatxuagatik, eta estatuak jarrera aldatu ezean litekeena da batzuk behintzat inoiz ez bueltatzea –antzeko egoeran daude beste 28 iheslari-. Herriratu direnetako askok behar material handiak dituzte, eta horiei aurre egiteko gainontzeko herritarrek ditugunak baino aukera gutxiago, urtetan ‘ez existitzearen’ ondorioz erretreta edo prestazio sozialak lortzea oso zaila zaielako. Behar emozionalak ez dira txikiagoak. Hamarkadak eman dituzte askok herritik kanpora, eta atzean utzi zuten Euskal Herria, senideak, lagunartea, denak aldatu dira.

Baina badute sostengurik ere. Herritarrena, Harrerarena, senideena, kide eta adiskideena. Ziurrenik ez da nahikoa, baina sostengu horietan sakontzean dago behar, zauri eta min horiek guztiak sendatzeko ukendua. Baita deportatuen historia ahaztuegia berreskuratzean ere: historia kolektiboa eta deportatu bakoitzarena; deportatuena eta beraiekin deportazioa sufritu duten lagun, senide eta seme-alabena. Bidean pilatu dituzten bizipen, galera, lorpen, min eta poz guztiak aintzat hartuta.

LOS DEPORTADOS DE ETA

(Txertoa, 2021)

Susana Panisello Sabaté



Bere tesi doktora da Paniselloren liburua oinarria. Ondo eta sakon dokumentatutako lana, deportazioaren ertz ugari jorratzen dituena –historia, arlo juridikoa, testuinguru politikoa, herrialde hartzaileei egindako ordainketa ezkutua, deportatuen bizi-baldintzak herrialdez herrialde...-. Ezinbesteko lana deportazioaren historia ezagutzeko.

1984

Panama, Kuba:

Josu Abrisketa Korta
José María Larretxea Goñi
José Luis Ansola Larrañaga
José Miguel Arrugaeta Sanemeterio
Karlós Ibarguren Agirre
José Antonio Mujika Arregi
José Ángel Urtiaga Martínez

Venezuela:

Venancio Sebastián Horcajo
José Antonio Gastón Sádaba
Jesús Ricardo Urteaga Repelles
Jon Sáez Treku
José Lorenzo Ayestarán Legorburu
Iñaki Arruti Agirre
Eugenio Barrutiabengoa Zabarte
Miren Artola Etxebarria Zurutuza

Panama:

Asensio Urrate Riaños
José Antonio Zurutuza Sarasola
Julián Tena Balsera
Ramón Zuzuarregi Redondo
José Ignacio Otaegi Múgica

Panama, Venezuela:

Juan Carlos Arriarán Ibarra
Koldo Saralegi Cornago
Juan José Aristizábal Kortajarena

Dominikar Errepublika, Ekuador, Aljeria, Dominikar Errepublika:

Eugenio Etxebeste Arizkuren

Togo:

Francisco Javier Alberdi Beristáin
Ángel Castrillo Alkalde
José Miguel Galdós Oronoz
Luziano Izagirre Mariskal

1985

Cabo Verde:

Tomás Linaza Etxebarria
Endika Iztueta Barandika
Ángel Lete Etxaniz

Ekuador, Sao Tome:

Alfonso Etxegarai Atxirika

Ekuador, Dominikar Errepublika, Panama, Venezuela:

Miguél Ángel Aldana Barrena

1986

Cabo Verde:

Iñaki Etxarte Urbieta
Amaia Egiguren Arrasate
Juan Ramón Aramburu Garmendia
Elena Bárcena Argüelles
Iñaki Rodríguez Muñoa
Patxi Rementeria Barruetabeña

Gabon, Aljeria:

Txomin Iturbe Abasolo

Deportatuak

1987

Aljeria, Cabo Verde:

José Miguel López Galarza
Emilio Martínez De Marigorta
José Luis Beotegi Ibáñez De Opakua

Aljeria, Venezuela:

Enrike Pagoaga Gallastegi
Asun Arana Altuna
José Arturo Cubillas Fontán
Koldo Zuloaga Balzisketa
Josetxu Portu Espina
Inazio Aierbe Múgica
José Luis Zurimendí Oribe
Juan Miguel Bardesi Torres
Begoña Trasbiña Izagirre
Gabriel Segura Burgos

Venezuela:

Jokin Yzeta Pikabea
Iñaki López De Bergara Astola
Juan Carlos García Gaztelu

Aljeria, Dominikar Errepublika:

Ángel Iturbe Abasolo

1989

Aljeria:

Patxi Hernández

Dominikar Errepublika:

Ignacio Arakama Mendía
Belén González Peñalva
Juan Manuel Soares Gamboa
José María Gantxegi

Cabo Verde:

José Antonio Olaizola Atxucarro
José Miguel Bustinzar Yurrebaso
Ramón Sagarzazu Olazaguirre
José María Pagoaga Gallastegi
Félix Manzanos Martínez
Yolanda Berruete Monzón
María Rosa Alkorta Arrizabalaga

Venezuela:

Kepa Viles Escobar

Deportazioan hilak

Txomin Iturbe Abasolo (1987-2-27)
Francisco Javier Alberdi Beristáin (1989-9-26)
Juan Ramón Aranburu Garmendia (1989-8-10)
Juan Ramón Bardesi Torres (1993-7-13)
Luis Zuluaga Balzisketa (1994-7-13)
José Mari Larretxea Goñi (1996-2-29)
Inaxio Aierbe Mujika (2000-2-14)
Ángel Lete Etxaniz (2002-12-10)
Endika Iztueta Barandika (2008-01-24)
Luziano Eizagirre Mariskal (2012-3-)
Miguél Ángel Aldana Barrena (2016-4-3)
Jesus Ricardo Urteaga Repulles (2020-4-20)

ITURRIAK:

Los deportados de ETA liburua;
Sorturen Preso eta
Iheslarien Batzordea.

JUANJO ARISTIZABAL ETA JOSÉ MIGUEL ARRUGAETA

Bizitza oso bat deportatuta

Juanjo Aristizabal Kortajarena trintxerpearrak eta José Miguel Arrugaeta San Emeterio bilbotarrak ondo ezagutzen dute deportazioa. 1984an deportatu zituzten biak: Panamara eta ondoren Kubara Arrugaeta; Panamara eta ondoren Venezuelara Aristizabal. 2014an itzuli zen Euskal Herrira Aristizabal, 2019an Arrugaeta. Deportatu zituztenetik 37 urtera, luze hitz egin digute itsasoz bestaldeko ibilerez, deportazioaren arrasto emozional eta materialez, sorterrira itzultzean aurkitu dituzten zailtasunez, beren borrokaren zentzuaz.

Arrugaetak 1979an egin zuen ihes Ipar Euskal Herrira. Bost urte eman zituen han, “gora-beheratsuak”, dio: 1980ko amaieran atxilo hartu zuten; Alpeetan asignatu; atxilo berriz; asignatu berriz; ihes egin; atxilo 1984ko urtarrilaren 10eko operazio sonatuan. Jendarmariak hamabost errefuxiatu atxilotu zituen eta horietariko seiri, tartean Arrugaetari, deportazioa ezarri zieten. Gaur egunera arte luzatzen den deportazio zikloaren lehenbiziko deportatuak ziren.

Denbora gutxi egin zuten estreinako euskal deportatuek Panaman. Oposizioak deportatuen auzia erabiltzen zuen Manuel Antonio Noriegaren gobernua higtzeko, eta presidentek euskaldunak kanporatu eta herrialdean deportaturik inoiz ez zela berriro hartuko adierazi zuen hauteskundeetan atarian. Maiatzaren 1ean irten ziren herrialdetik. Baina Noriegak apenas galdu zuen astirik hauteskundeak irabazi ostean berriro ere de-

portatuak hartzeko Panaman: ekaina eta abuztu artean zortzi errefuxiatu deportatu zituen Frantziak bertara. Aristizabal zen horietako bat.

Aristizabalek 1978an zeharkatu zuen muga. Sei urte eman zituen Ipar Euskal herrian, 1984an atxilotu eta Baionan espetxeratu zuten arte. Hilabetera, kartzelatik irten zen unean bertan jendarmek berriz ere hartu zuten atxilo, eta hilabeteko konfinamenduaren ostean, abuztuaren 2an, Panamara deportatu zuten. Hilabete batzuk lehenago Arrugaetak bizitoki izan zuen etxe berdinerira heldu zen.

DEPORTAZIOAREN SHOCKA

“Deportazioa psikologikoki shock bat da, kolpe oso gogorra”, dio Aristizabalek, oroitzuz nola jakinarazi zioten Panamara deportatuko zutela apenas 24 orduko tartearekin. Baietz dio Arrugaetak buruari gora eta behera eraginez, ohiko prozedura baitzen hori. “Zeren eta, Iparraldera heltzean, batetik ezaguna zaizu, bes-

etik *txakurrengandik* eta torturatik libratu zara. Klandestinoki bada ere, familia eta lagunak datozkizu, pakeak jasotzen dituzu...”, nabarmendu du alde Aristizabalek. Egun batetik bestera dator deportazioa, eta noiz arte jakin gabe –inork ez zuen espero horrenbeste luzatuko zenik-. Emozionalki “kristoren higadura” sortzen duena, azpimarratu du Arrugaetak.

Gehitu horri ziurgabetasun juridikoa. Batetik, Arrugaeta eta Juanjo, ia deportatu guztiak bezala, ez zuten inongo kausarik irekita inongo tribunal espainiar edo frantsesean: ez zitzairen inongo delitu edo ekin-tza zehatzik leporatzen, baizik eta “arriskutsuak” izatea. Bestetik, papergabeak ziren. Ez zuten nor ziren edo non zeuden eta zergatik frogatuko zuen dokumentaziorik, “ez ginen existitzen”. Babesgabetasun juridikoak bestelako beldurrak ere bazekartzan, besteak beste edozein unetan desagerraraziak, torturatuak edo lekualdatuak izatekoak.



DANI BLANCO

PANAMAN, YANKIEK INBADITU ARTE

“Gorgonako etxean zortzi euskaldun eta sei txakur bizi ginen, espazioa konpartitzen genuen baina nor bere aldetik antolatzen ginen otordueta-ko-eta. Goizeko lehen orduan haiekin batera irten gintezkeen hondartzan korrika egitera”, gogoratu du Aristizabalek Panamako aldia. Heldu eta hilabetera telebista katea aldatu zuen euskaldunetako batek, poliziek beisbol partida “sokratua” ikusten ari zirela: iskanbila izugarria piztu zen, eta Tinajitas kuartel militarra eraman zituzten zigortuta. Deportatuak Sebastián Laboa nuntzioaren –Aita Santuaren enbaxadorea Panaman-bitartez lortu zuten handik ateratzea, bi etxetara. “Hamabost egunero sinatzera joan behar genuen, 300 dolar genuen hilabetero gastuetarako, ematen zigutenean. Ez ziguten lan egiten uzten. Paperik ez genuen”.

1989an AEBek Panama inbaditu zuten. Deportatuak arrisku egoeran

zeuden. “Nuntziaturara heltzea lortzen baduzue babesa emango dizuet”, esan zien Laboak telefonoz hitz egitea lortu zutenean. Vatikanoren enbaxadan gotortu ziren euskaldun apaiza eta euskaldun terroristak... Noriega presidentearekin eta herrialdeko kupa militar guztiarekin batera. Yankiek eraikuntza setiatu zuten 52 egunez, rock musika gorgarria egunean 24 orduz jarrita, gauean armen izpi infragorriez mehatxatuta... “ [Elecier] Gaitan, Noriegaren eskolta ardura-dunak, esan zigun: ‘Vascos, ikusiko duzue, hemen azkenean zuek eta ni bakarrik geratuko gara’. Ez genion sinesten baina horrela izan zen”. Militarrek eta presidentek beren burua entregatu zuten egunez egun. Deportatuak, Espainiako eta Venezuelako presidente Felipe González eta Carlos Andrés Pérezen arteko akordioari esker, Venezuelarantz irten ziren Pérezen jet pribatuan. Gaitánek ezustean ihes egitea lortu zuen... eta Kuban eza-gutu zuen Arrugaetak.

KUBAN

Panamatik Kubara deportatu baitzituzten Arrugaeta eta bere kideak 1984an. Deportazioaren historian salbuespena den akordio hirutariko baten bidez, deportatuak irlara beren borondatez joatea izan baitzen Kubak jarritako baldintzetako bat. Baziren beste konpromiso batzuk ere. Batetik, deportatuen eta Kubaren artean: “Kubak esan zigun, ‘hau ez da espetxe bat, eta iraultzaileak zaretenez, hartu konpromiso bat gurekin’. Guk, konpromiso hori beteko zela bermatzen genuen”. Bestetik, Kubaren eta Espainiaren artean: “Ez da egongo inoiz entregarik edo estradiziorik, eta nahi dutenean alde egin dezakete, baina egitekotan ezin dira bueltatu”, azaldu du Arrugaetak.

“Bi urte-edo ‘atendituta’ egon ginen, haiek esaten zuten bezala, gero apartamentu oso xume batzuk eman zizkiguten, eta diru gutxi bat bizi-rauteko”. Kubak zein deportatuak oro har konpromisoak bete dituztela

dio Arrugaetak, baina izan direla harmakada horietan zenbait une “oso delikatu”. Bost urte zeramatzan Kuban Arrugaetak, Aristizabal 1990eko otsailan Venezuelara heldu zenerako.

VENEZUELAN

“Heltzean dokumentazioa eman ziguten, Panamako bost urteetan izan ez genuena. “*Os buscais la vida*’, esan ziguten”, dio Aristizabalek. Cumanan ezarri zen Aristizabal, Venezuelako ipar-ekialdeko kostaldean. Lan egiteko baimena baliatu ahal izan zuen, tailer batean lehenik, atunontzien mantentze-lanetan ondoren, atunen kontserba enpresa batean azkenik. Hilabete behin DISIP polizia politikoaren egoitzan aurkeztu behar zuten sinatzera, baina horrez gain, “edozein momentutan” agertu zitezkeen Polizia lantokian, etxean edo nonahi: “Oso kontrolatuta geunden”. Chávezen garaian sinatzeko betekizuna kendu zieten deportatuei, legez kanpokoa zela agudiatuta.

ONDO, ETXEAN SOILIK

Galdetuta ea Venezuelako eta Kubako deportatuen baldintzak hobea goak izan diren beste herrialdeetakoena baino, Arrugaetak salto egiten du: “Esan dezakezu, Kuban *deputamadre* zaude! Ez barka, ni *deputamadre* nire etxean nago, nire bizitzaren 35 urte eman ditut irla batean, bai, palmondoekin. Hamar urte ama ikusi gabe, hil berri dena”. Zirkunstantzia “desberdinak” egon direla nabarmentzen dute biek: bai herrialdearen arabera –“akaso larrienak Ekuadorrekoak eta Dominikar Errepublikakoak”–; bai herrialde bakoitzaren testuinguru politikoaren arabera –“herrialde gehienetan, ezegonkortasun politiko eta militar handia zegoen”–.

Deportatuek jarrera kolektibo bateratuak hartzea zaildu zuten egoeren ezberdintasunek eta komunikatzeko zailtasunek, Arrugaetaren iritziz. “Herrialde bakoitzean

bai hartu ziren, herrialdeen artean ez”. Harreman eta jarrera pertsonal zein politikoez ere baldintzatu dute deportatuen ibilbidea.

HARREMAN PERTSONAL-POLITIKOAK

ETA militarreko ‘miliak’, ETA politiko-militarreko ‘polimiliak’ eta Komando Autonomo Antikapitalistetako ‘autonomoak’ zeuden deportatuen artean. Erakunde bakoitzak bilakaera oso ezberdina izan zuen, eta une askotan oso harreman liskartsua elkarren artean. Aristizabal eta Arrugaeta polimiliak izan ziren hasiera batean, baina miliak ziren deportatu zituztenerako. Panaman eta Kuban miliak eta polimiliak zeuden nahastuta: “Gure tirabirak izan genituen, baina ondo konpondu ginen, ulertu genuen egoera hartan ahalegina egin eta zentzuz jokatu behar genuela”, gogoratu du Arrugaetak.

“Nor bere etxekoa ginen”, dio Aristizabalek erakundeez ez ezik izaeraz eta portaeraz ari dela. Panaman, esaterako, deportatuetako batek telebista kanala aldatzean denak zigortuak izan ostean liskarra piztu zen haien artean: “Hor erabaki genuen antolatzea, eta erabaki kolektiboan hartzea, gehiengo”. Kuartel militarrean zigortuta zeudela gose greba hasi zuten, atera zituzten: “Gose greban KAS alternatiba bete arte. Gero autonomoek beren kide deportatuekin hitz egin zuten eta ezetz esan zieten: akabo gose greba”, oroitu ditu gaur, barrez, aspaldiko haserreak.

Gogoratu dute ere hamarkada hauetan “denetarik” egon dela haien artean: borroka armatua egiteko ihes egin zutenak; bizitza publiko egiteko ihes egin zutenak erabaki kolektibo batean baitan; kolektiboaren babesik gabe ihes egin zutenak; damutze politikak onartuta bueltatu zirenak... “Zoritxarrez denetarik izan dugu, baina hor jarraitzen dugu”, laburbildu du Aristizabalek.

ESKUAK POLTSIKOAN JOAN, ESKUAK POLTSIKOAN BUELTATU

1984an deportatu zituzten Aristizabal eta Arrugaeta, eta 37 urte geroago ezagutu dira Euskal Herrian, hitzordu honetan. Aristizabal 2014an etorri zen lehenbizikoz. Gero eta denbora gehiago ematen du Euskal Herrian baina oraindik ere Venezuelara bidaiatzen jarraitzen du. Arrugaeta 2019an bueltatu zen, baina betirako Kuban geratzeko arriskuan egon zen. 2010ean Espainiako Auzitegi Nazionalak kausa bat ireki zuen Kubako eta Venezuelako sei deportatuen eta FARCeko ustezko zazpi kideren aurka. “Edozein faxistaren ametsa: Chávez, Castro, FARC, narkotrafikoa eta ETakoak, denak nahastuta”. Arrugaetak orduan bide “konplikatu” bat probatu zuen: Kolonbiako bake akordioaren amnistia aplikatu ziezaietela. Ezustean, Auzitegi Nazionalak onartu egin zuen eskaria, barrez gogoratzen duenez. “Gu bostok papertxo batekin bueltatu gara, sumario horretatik amnistiatu gaituztela dioena”.

“Deportazioa ez da amaitu”, diote, ordea, biek ala biek. Batetik, zortzi lagun deportatuta jarraitzen dutelako Kuban, Cabo Verde eta Venezuelan. Bestetik, deportazioa ez delako amaitzen herrira bueltatzearekin. Deportazioaren herrialdean bizitzak eraiki dituzte deportatuek, lagunak eta kideak utzi dituzte han, Juanjok etxea eta lana, Arrugaetak alaba bat, esaterako. Bestalde, Euskal Herrian bizitza berria eraikitzea ez da batere samurra.

Zailtasun ekonomikoei eta eragozpen administratiboei egin behar diete aurre deportatu ohiek. “Ez garenez existitzen ez dugu eskubiderik. Inoiz ez gara kanpoan egon ofizialki. Oinarrizko Errenta jasotzeko, Jaurilaritzak eskatu dit demonstratu dezadala Euskal Herrikan kanpora hiru urte baino gehiago eman ditudala: txantxetan ari zara?”, dio Arrugaetak. “Itxaron behar dugu ez

**JUANJO ARISTIZABAL
ETA IONE IDIGORAS**
Venezuela, 1999.



JUANJO ARISTIZABALEK ETA IONE IDIGORASEK UTZIAK

dakit zer adinera heltzea, pensio ez kontributiboa eskatzeko". Aristizabal antzeko egoeran dago: "Emaztearengandik banatu behar dudala esan zidaten. Erretiroa hartuta dago, etxebizitza du... Berak mantentzen nau, ez dut ezertarako eskubidea". Senide, lagun eta herritarren babesa dutela dio Arrugaetak, "zorionez", eta Harrera elkartearen lana gorai-patu du bereziki.

TOKIA AURKITZEAREN ZAILTASUNAK

Hogeitaka urterekin joan, hirurogeitakarekin bueltatu. "Kartzelan hamarkadak eman ostean irteeta trauma bat den modu berean da traumatikoa deportaziotik bueltatzea. Herri bat berriz ere ezagutzea. Aldatu dira paisaia, jendea, gu, mundua", azaldu du Arrugaetak. Lortu zuen behintzat amarekin elkartzea eta zaintzeko garaiz iristea -elkarrizketa hau egin aurreko egunean hil zaio ama. "Ez, haren omenez ere egin nahi dut", erantzun dio hitzordua bertan behera uzteko proposamenari-. Aristizabalek ama bersarkatu zuen 30 urteren ondoren. Baina tokia aurkitzea hori baino gehiago da.

Aurkitu duela sentitzen du Arrugaetak, urteak kostatu bazaio ere. "Etxean zaudela sentitzea... Sentsazio hori bat-batean izan nuen, harri baten goroldioa ukitzen, ardi batzuk ikusten nituela. Haurtzaroko gauzak gogoratzen hasi nintzen", dio begiak bustita. Aristizabalek, aldiz, momentuz ez: "Zazpi urte dira bueltatu nintzenetik. Trintxerpera noa, lagunekin nago, Hernanin bizi naiz... baina ez dut tokia aurkitu. Lagunak aldatu dira, beste jendarte bat da, ostiralero kontzentrazioa egiten duzu eta elizako apaiz eta mojak ematen dugu, ez oihukatu ez deus", amaitzen du barrez. "Polizia aurretik joate hori bidea zabaltzen, joder, gure garaian atzetik zihoazen, eta gu aurretik baina korrika!", jarraitu dio Arrugaetak umorez.

EGOERA POLITIKOAZ BUELTAN

"Ez noa nahiko nukeen bezain azkar, baina etsaiak nahiko lukeena baino azkarrago noa", dio Aristizabalek, deportaziora eraman zituen borroka bueltatzean nola aurkitu duten galdetzean. "Hori ere ez da kontsolamendua, kontuz, desmobilizazioa nabarmena da". Arrugaetak sentipen

"anbigua" du: "Ez dut Euskal Herria okerrago ikusten. Aldatu da, jendarte guztiak aldatzen direlako, eta gu belaunaldi baten, batzuen, parte gara, beste ulermen bat izan zuena politikaz, inplikazioaz, konpromisoaz".

Biek antzematen dituzte argiak eta ilunak, eta bat datoz gauza batean. Iruditzen zaie orain 50 urte pentsaezinak ziren borrokaren zenbait lorpen -euskara irakaskuntzan, autonomia maila bat, zerbitzu publikoak- ziurtzat ematen direla gaur; baina hori ere kendu diezaguketela edozein unetan, eta euskal jendartea ez dagoela "horiek defendatzeko prestatuta". Gehiago amesten zuten halere, haustura bat, autodeterminazio eskubidea, eta korapilo horiek berdin jarraitzen dute funtsean. "Galde diezaietela katalanei", dio Arrugaetak.

MEREZI IZAN DU

Balantzea egiteko orduan, deportatuen hurbilekoek sufritu eta sufritzen dutena azpimarratu dute lehenbizi. "Senideak, deportazio paralelo bat bizi izan dutenak. Horiek ere sufritu dute, horiek ere hil ziren", hunkitu da berriz Arrugaeta. "Oso gogorra da familientzako, asko hautsi dira distantzien ondorioz", dio Aristizabalek.

Presoen edo iheslarien aldean deportatuak ahaztuagoak egon direla uste du Arrugaetak, baina ulerkor mintzo da: "Arreta sentitu dut uneoro. Bai, ahantzura bat egon zen, baina gatazkaren lehentasunei lotuta, eta ulertzen dut".

"Niretzako merezi izan du, bai. Batek erabaki bat hartzen duenean, hartu egiten du. Ez naiz kexu. Oso une txarrak pasa ditugu, baina onak ere bai", dio Aristizabalek, eta Arrugaetak itxi du solasaldia: "Bizitza bakarra izan dut, interesgarria izan da eta nik erabaki dut. Ondo edo txarto dagoen? Agian, egunero lantokian zortzi ordu ematea, erretiroa ziurtatu eta plazara joateko, bizitza on bat da. Ez da nire hautua izan".

IONE IDIGORAS SANTANA

“Aitortza egin behar diegu seme-alaba eta bikotekide guztiei, asko sufritu eta eman dute”

Ione Idigoras ez duzu deportatuen zerrendan aurkituko, baina 30 urtez sufritu du lehen pertsonan. Bere bizipen gordina beste askoren arteko bat dela dio, bereziki emakume eta seme-alaba askorena, eta ahaztutako errealitate horien aitortza aldarrikatzen du, minez bezain irmo.

Deportatua izan gabe deportazioa bizi izan duzu hamarkadetan, Juanjo [Juanjo Aristizabal Kortajarena] mundu osoan zehar jarraituz.

Nik Juanjo zertan sartu zen usainik ere ez nuen hasiera batean. 1978an alde egin zuenean haurdun nengoen, eta seme nagusiak 5 urte zituen. Ipar Euskal Herrian bizi izan zen sei urte haiek jada oso gogorrak izan ziren, beldurgarriak. Joan-etorria egiten nuen bakoitzean kontrolak, tentsioa, miaketak... Bizitza guztia horrela: Juanjo ETAn zegoenez nik ere egon behar nuen, haien ustez. Baina ez zen horrela, nire dedikazioa familia-arentzako zen.

1984an, bat-batean, deportazioa. Hasteko, Panamara.

Badakizu nola izan zen agurra? Musu eman eta esan zidan, "Gehien maite dudana uzten dut hemen, *enpresa*, eta zuek". Baina beti lehena bestea.

Nola egiten zenuten?

Uztaila eta abuztua bi umeekin ematen nituen bertan, eta abenduan txikiarekin soilik joaten nintzen, aita ezagutu zezan. Amodio-gorroto sentimendua zeukan Juanjorekiko,

gorrotoa gehiago. Etxean inoiz ikusi ez, eta Panamara joatean berarekin oheratzen nintzela ikusten zuen. Kristoren istiluak sortzen zizkion. Gerora ikusi nuen antzeko egoerak bizi izan dituzten haur askok berdin jokatu dutela. Izugarri sufritu dute askok.

Seme nagusiaren oporraldiak aitarengana joatea izan dira, urtero-urtero: umetan nirekin, gero neska-lagunarekin, ondoren seme-alabekin... Txikiak 11 urterekin bi aldiz bidaiatu zuen bakar-bakarrik Venezuelara ni espetxean nengoen bitartean. Haur guztiek ez dute hori onartzen, edo nahi, edo berdin bizi.

Gastu ekonomikoa handia izango zen.

Urte osoa lan eta lan ematen nuen, bidaia-txartelak ordaindu ahal izateko. Taberna genuen Trintxerpen. Hamazortzi orduz egiten nuen lan, eta umeak senideekin (ahizparekin, Juanjoren gurasoekin...), apenas ikusten nituen. Familiak laguntzen zidan. Panamara joaten ginenean nire gurasoak eta Juanjoren ama geratzen ziren tabernan lanean. Eta ez ziren txartelak bakarrik, Juanjori dirua eta paketeak bidaltzen nizkion.

Sei urtera Panamatik Venezuelara deportatu zuten Juanjo.

Venezuelan 24 urte egin genituen. Ordurako Trintxerpeko taberna utzi eta Hernaniko jubilatuen etxekoa hartuta genuen. Etxebizitza eraikin berean genuen, eta han ordutegi bat nuen. Umeek diote garairik politena izan zela. Lagunak zetozen etxera, ahizpak laguntzen zidan...

Juanjoren lehentasuna "politika" zela eta zurea "familia" esan duzu. Banaketa ez zen horren argia izango, ala?

Ni beti saiatu naiz Juanjoren begiak eta belarriak izaten, jasotzen nuena berarekin eta deportatu guztiakin konpartitzeko. Askori ez zitzaion gustatzen eramaten nuen errealtatea, baina nik jakin zezaten nahi nuen, abokatuek entzun nahi zutena esaten zieten-eta. Nik ez, eta arazoak izan ditut horregatik. Eta Euskal Herrian, aldiz, *txakurrada* inguruan genuen beti, egunero. Tentsio izugarria zen.

Espetxean ere egon zinen.

1991ko martxoaren 16an, nire urtebetetzea ospatzera joan nintzen

beste aldera, errefuxiatuta zeuden hiru lagunekin eta familiarekin. Hain zorte txarrarekin, non errefuxiatuetako baten atzetik zebilen Jendarmaria, eta hor atxilotu gintuzten denak. Esan nuenean senarra deportatuta zegoela, agur. Bederatzi hilabete Fleuryko espetxean, Parisen; Juanjo Venezuelan; seme nagusia Hernanin; eta txikia Donostian. Tarte horretan etxea eta taberna ere galdu genituen. Espetxea ez, semerik gabe egotea izan zen oso gogorra [pauza egiten du, hunkituta]. Azkenean heldu zen epaiketa, eta 1992ko uztailaren 11n libre geratu nintzen, kargurik gabe.

■ Eta berriz ere aurreko dinamika berrartu zenuten?

Libre geratu eta hurrengo egunean Venezuelan nintzen. Oso txarto nengoen, dena ahazten zitzaidan, ni neu larrituta nengoen, denek esaten zidaten pasatutako guztiaren ondorioa zela. Seme nagusiak hain txarto ikusi ninduen, Venezuelan bertan geratzeko esan zidala. Juanjori esan nion, "edo geratzen naiz eta elkarrekin bizi gara, edo banatzen gara". Ha-

mabost urte generamatzen horrela. Oso polita da hemendik hara zoazenean eta nahi duzun guztia, bai, baina tartean urte osoa dago, bizipenez, sufrikarioz eta bestelakoez beteta. Hoztasun afektibora heltzen zara.

■ Venezuelan geratu zinen orduan?

Bai, baina negar batean ematen nituen egunak, semeak faltan nituelako. Juanjok proposatu zidan ikasten hastea, zerbait egin behar nuela egoerari buelta emateko. Batxillergoa atera nuen 52 urterekin, gero idazkaritza konputerizatua bi urtez. Ikasi eta ikasi. Praktikak Kultura Ministerioan egin nituen, eta bertan jarritu nuen lanean sei urtez.

Bost urtetan ezin izan nintzen Euskal Herrira bueltatu, ez genuelako dirurik [begiak bustitzen ditu]. Semeak etortzen ziren. Borroka honi zerbait eskertzen badiot gure semeak dira, borrokaren semeak dira, apartekoak. Eta gorriak pasa dituzte.

■ Nola gurutzatzen da generoa honetan guztian?

Nik kristoren erresumina dut, nik

bezala beste emakume asko. "Gatazkaren ahaztuak", dio Paniselloren liburuak deportatuez. Baina ahaztuenak seme-alabak eta bikoteak gara, behar izan diren urte guztiak behar izan den guztia ematen egon ostean. Dena besteentzako –semeengatik, senarengatik...–, ez genuen beste ezertan pentsatzen. Eta hemen geundenean bileraz bilera, laguntzen saiatzeko. Auzoan, Bruselara, Parisera... Baina gero, hain iraultzaileak omen, eta omenaldi guztiak gizoni egiten zaizkie. Gizonak egon dira egon diren tokian, ados, emakume batzuk ere egon dira hor. Baina uste dut aitortza egin behar diegula seme-alaba eta bikote horiei guztiei, asko sufritu eta eman dute.

■ Bikotea espetxean duten emakumeek gizonen baino luzaragoan eusten diete harremani. Deportaziorako balio dezake horrek?

Zuk uste duzu nire senarrak 40 urtez jarraituko ninduela? Alderantziz izan balitz, ikusi izango nituzkeen nire semeak, errefuxiatuta egonez gero Hendaian behin, eta espetxerata beste behin Martutenen. Puntu. Gizonak ez dio eusten ezta hiru hilabetez ere. Hori nik ikusi dut, bizi izan dut. Bereko hezi zaituztete.

Ez dago bat bekaturik ez duenik. Ez dut esaten emakumeok ere egin ez dugunik, baina gu epaituak gara eta haiek ez, familiarengandik hasita. Nik entzun behar izan dut berak beharrak dituela: eta nirekin zer geratzen da? Lagunak egitea ere susmagarria zen.

■ Mina duzu barrenean

Seme-alabei eta emakumei aitortza egitea nahi dut, eskerrik asko ez, ez da hori, baina zer dakit nik, kontuan hartzea pixka bat. Berdin espetxetara doazen emakumei, bikote errefuxiatuak izan dituztenei, eta beren emakumeen borroka jarraitu duten gizon gutxiei ere bai.



DANI BLANCO

EUGENIO BARRUTIABENGOA ZABARTE 'ARBE'

“Etxera bueltatu nahi dut, hemen gauden guztiek bezala”

Eugenio Barrutiabengoa *Arbe* arrasatearra 1978an errefuxiatu zen Ipar Euskal Herrian. Komando Autonomo Antikapitalistetako militantea 1981ean atxilotu zuten lehenbizikoz, eta asignazioa apurtu ostean Baionan bigarrenkoz, 1984an. Venezuelara deportatu zuten orduan, María Ángeles Artola bikote eta Komandoetako kide azpeitiarrarekin batera. Aldaketarik ezean, biktimen elkarteek eta Espainiako Gobernuak sustatutako jazarpen judizialaren ondorioz Euskal Herrira bueltatzerik izango ez duten zortzi deportatuetako bat da. Deportatua da eta, gainera, atxilotze agindua du bere aurka.

1996a arte Venezuelako gainontzeko deportatuen baldintza berdinetan bizi zinen. Zer gertatu zen orduan?

[José María] Aznarrek hauteskundeak irabazi eta jarraian sei laguni estradizioa eskatu ziguten. Ni Interpolek atxilotu ninduen, eta istilu handia piztu zen. Batetik, gu hiru estaturen arteko akordioen ondorioz geundelako han. Bestetik, Espainiak ez zituelako prozedura legalak errespetatu, epaile bati ordaindu zion atxilotu gintzaten... Hilabete batzuen buruan, bide legaletik eskatu zuen nire estradizioa. [Hugo] Chávez heldu zen ondoren [1999] eta hilabetero Poliziaren aurrean aurkezteko agindua bertan behera utzi zuen, legez kanpokoa zela argudiatuta.

Baina arazoak ez ziren amaitu, ezta?

2002an atxiloketa agindua eman zu-

ten gure aurka. Handik aurrera bizi-modua pixka bat aldrebestu zitzaidan, ezin nuen bizitza normala egin. Ezpata dut buru gainean 1996tik. Nahiz eta nire aurkako kausa, berez, preskribituta egon beharko lukeen. Gauza da estradizio eskaera egitean preskripzio epea zerotik hasten da berriz: beste 20 urte, beraz.

Baina 1996an eskatu bazizuten estradizioa, 2016an preskribitu beharko luke.

Atxilotze agindua duzu, ordea. 2016an amaituko zen, baina 2016ko hasieran eskaera berri zuten, eta kontagailua hirugarrenez jarri zuten zeroan. Ematen du bizitza osorako zigorra dudala. Errefuxiatuei ere egiten diete berdin orain. Orain, nola gutxiago garen, biktimek aukera gehiago dute espediente bakoitzari jarraipen estua egiteko. Pentsa, hemengo errefuxiatu bat kontsulatura joan zen pa-

saporte eskatzera 2016an. Esan zioten oraindik urte batzuk pasatu behar zutela. Atzo bertan joan zen berriz ere, ustez pasaporte hartzera, eta esan zioten aurreko aldian joan zenean atxiloketa agindua jarri zutela bere aurka, ederki izorratu dute. Orain deportatuen artean ni bakarrik geratzen naiz.

Euskal iheslari eta deportatuen komunitatea handia zen Venezuelan, azken urteetan nabarmen murriztu da. Nola zaudete han jarraitzen duzuenak?

Bizitza asko okertzen ari zaigu. Errefuxiatu asko ginen garai batean, eta gure artean familia bat ginen. Arazorik egotekotan bazenuen jendea. Orain gelditzen garenak gutxi gara, eta ezin dugu bizitza normal bat eraman. Une jakin batean iturria ireki zuten jendea bueltatzeko, baina moztu dute. Lotsagarri ari



EUGENIO BARRUTIABENGOAK UTZIA

dira, legearekin zein legez kanpo. Ikusten dugu presoak hurreratzen ari direla han, hemen aldiz, gu gero eta gehiago izorratzen, ez dakit zergatik.

■ Urteen joana ere nabaritzen al duzu?

Hemen lau deportatu hil dira, gaitasunekin, eta horrek kolpatu egiten zaitu. 28 urterekin heldu nintzen, orain 65 ditut. Zahartzen goaz, gaixotasunak, Venezuela jada ez da Chávezen garaikoa, yankien blokeoarekin-eta bizimodua asko zaildu da...

■ Venezuelako egoera politikoak zure bizitza baldintzatzen du?

Orain gure egoera ona ez bada, chavismoa eroriz gero oso beltza jarriko zaigu. Biktimen elkarteek-eta Henrique Capriles babesten dute. Caprilesen esan zuen ez lukeela beharko ezta Espainiaren eskae-

ra formala ere gu hara bidaltzeko: "Izenak eman eta denak hegazkin batean bidaliko ditugu". Fuerte da.

■ Gatazkako errepresaliatuen artean ahaztuenak izan zarete denbora luzez. Gatazka armatuaren ostean are ahaztuagoak geratzeko arriskua duzuela uste duzu?

Horixe beldurra ematen duela. Memoria borrokatu behar dugu. Irabazten dutenek idazten dute historia, baina guk gurearen alde borrokatu behar dugu. Edonola dela, garrantzitsuena Euskal Herriaren alde borrokatzen jarraitzea da, nor bere herrian, nor bere esparruan, euskara mailan, gero eta larriago dagoen langileriaren alde... Antolatu eta aurrera egin, hori da garrantzitsuena. Eta mesedez, hau jarri, garrantzitsua da eta: nik etxera bueltatu nahi dudala, hemen gauden guztiek bezala. ●

Deportatuak gaur egun

Venezuela:

Eugenio Barrutiabengoa
Zabarte (Arrasate)

Kuba:

Josu Abrisketa Korta (Ugao)
José Ángel Urtiaga
Martínez (Mamariga)
Iñaki Rodríguez (Orereta)

Cabo Verde:

Tomás Linaza (Lemoa)
José Antonio Olaizola
Atxukarro (Zestoa)
Emilio Martínez de
Marigorta (Gasteiz)
Félix Manzanos Martínez
(Ugao)



LAGUNDU BANAKETA SAREA INDARTZEN

Lan baldintza duinak bermatzen dituzten banaketa kooperatibak sortzen ari dira Euskal Herrian. ARGIA hasieratik sustatzaile da eta gainera, honi esker, aldizkariak harpidedunei bizikletan banatzen hasi gara. Helburua, geroz eta herri gehiagotara zabaltzea.



ZER EGIN DEZAKET?

Aukerarik ikusten baduzu herrian halako banaketa sistema bat sustatzeko, jarri gurekin harremanetan eta azter dezagun egoera:

KOMUNITATEA@ARGIA.EUS

ARGIAko kide egin halako proiektuak bultzatzeko:

ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA
943 37 15 45